



Txapelpunk taldeaz (Lekeitio, 1999) beti esan da Iñigo Arrasate Lauzirikaren ideia izan dela. Iñigitok bere erara moldatu du taldea, bere musika gustuetara mugatu du musika ekintza. Iñigitok ez du inoiz geldirik egoten ikasi eta Etsaiak taldearen pausaldi edo atsedenalditxoan eratu zuen Txapelpunk taldea maisutasunez. Lehen diskoa 2000n argitaratu zuen, jaia eta dantza nagusi erritmo punkietan barne. Modu horretan joan dira argitaratu dituen bost diskoak. Baina azken urtean geldirik eduki du Txapelpunk begian arazoak izan dituelako. Osatuta, aintzinako gogo antzekoekin datorkigu plazara.

Txapelpunk taldearen single berria, "Piratak Athletic" Luberrri estudioan grabatu, nahastu eta masterizatu du Txus Lozanok. Singlearekin batera Iñigitoren "La Perla Negra" ezizena duen itxasontzian grabatu du bideoa Wovoka Films Company-k.

Txapelpunk taldea "Piratak Athletic" abesti eta bideoarekin dator berriro Euskal Herriko eskenatokietara. Urteak dira Athletic taldearentzat kantu bat kaleratzeko gogoia zuela Txapelpunk taldeak eta proposamena egia bihurtzea lortu du Piratak Athletic peñarekin. Kantu bizia, azkarra, motza eta itsaskorra. Ez dio, inolaz ere, Athletic taldearen ereserkiari konpetentzia egingo baina asmoa da zaleek duten adorea, indarra, balorea eta kemena jai bihurtzea eta indartzea modurik itxurosoenean eta, bide batez, Txapelpunk hurbiltzea berriro zuzenekoetara. Txapelpunk eta Piratak Athletic peña elkarlanean single honetan. Txapelpunk prest dago, eta baita prestutasuna ere, jo ta su eskenatokiak berotzeko.



1.- Txapelpunk eta Piratak zale taldea batu dira Athletic-i gorazarre egiteko himno bizi eta melodikoarekin?

Athletic-ek badauka bere himno edo ereserkia. Kantu hau Piratak Athletic peñakoentzat da, hauek direlako partiduz partidu beraien ahotsa urratzen dutenak taldea animatzen, taldearen garaipenen partehartzaille amorratuena dira. Athletic nora, Piratak bertara milaka kilometro eginez denboraldi bakoitzean. Txapelpunk taldea Athletic zaleak gara eta abesti honekin Piraten ezinbesteko ekarpena eskertu nahi dugu. Jokalariak alderik garrantzitsuena dira baina Piratak, Herri Norte eta jarraitzaileak orokorrean Athletic taldearen sentimenduaren eragile bizienak dira ere bai. Piratak Athletic definitzeko hau esango nuke "irabazi nahiz galdu, beti animatu".

2.- Txapelpunk pirata sentitzen da bizitzaren gorabeheretan?

Egoera dagoen bezala sentitzen da, eta da!!! Ihaz begian arazo bat eduki nuen eta larrialdietara joan behar izan nuen ebakuntza egin ziezadaten, erretina-askatze bat izan nuen... ia, ia partxe eta guzti geratzear egon nintzen...

3.- Txapelpunk urte batzuk geldirik egon ondoren berriro lehiatzera dator musikaren eskenara?

Txapelpunk dike sikuari, lehorrean, egon da azken urtean. Denok nahikoa liatuta ibili gara. Orain martxan gaude berriro. Abestiz lepo dauden kainoiak pilatuta ditugu eta zuzenekoetan hauek lehertzeko prest gaude. Aupa rock and ron-a!


Iñigito: ahotsa

Atrofi: baxua

Nani: gitarra

Toki: bateria

elkarrizketak: 690 704 255
ritxi aizpuru (2013ko ekainaren 4a)



baga-biga musika ideiak
telf. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com